

¿...!

Laino?... Izar?... Ames?...
Zer ajola dio!
Zoaz zere bidez.

Nemesio Etxaniz, 1955

Baratzean lurra iraultzen den bezala, iraultza dakar baratzeak. Gure garaiko iraultzarik handienetakoa. Baratzerako grina berpizten ari da, ari denez, eta liburu honek lehen urratsak egiteko gida ezin hobea eskaintzen du, bertoko ikuspegiak. Oinarri irakurterraza aurkituko duzu hemen, aholku onez betetako oinarria. Garrantzitsuenetakoa, hauxe: eraman beti aldean arkatza eta koaderno edo kaiera, horiexek baitira, beharbada, baratzezain ororen tresnarik garrantzitsuenak. Baratze bakoitza mundu bat da, hasi zeurea gauzatzen. Eta ezagutzen.

Zeruak lurra bezainbat
maite gaitu lurrak ere gu,
amak bere haragi den haurtxoari dion maitasun bertsuz,

eta amak bere haurra,
eta zeruak lurra bezala
zaintzen gaitu lurrak gu.

ja artze "artzabal"

 **argia**



 **argia**

BIZI BARATZEA

Jakoba Errekondo

BIZI BARATZEA

garaian · garaikoa · garaiz.

Jakoba Errekondo



eman eta hartu

Inork
loreak ekarri zain
egon beharrian,
zeure baratzea landatu
eta
zeure arima edertu.

Jorge Luis Borges.

BARATZEA BIZITZEKO BIDEZIDORRA

EZERTAN HASI AURRETIK	12	Ereintza	34
HASTEN HASTEKO	14	Muintegirako bidean	36
DINARRIA	16	Beste ugalketa erak	37
LURRA	18	LAN NAGUSIAK	38
Mineralak		Lurra irauli edo ez	
Materia organikoak		Aldatzea	
Mikroorganismoak		Ureztaketa	
Aieka fisikoa		Jorraketa	
Aieka kimikoa		Lurreztaketa	
URA	20	Azpiak egitea	
ARGIA	22	Kimaketa	
		Arbatzea	
ONGARRIAK	24	UZTA	40
ONGARRI MINERALAK	26	ILARGIAREN ERAGINA	42
Karea edo gisua	28	BURUHAUSTEAK	46
Kareharri hautsa		Edonon gerta daitezkeenak	48
Dolomitikoa		Izotza	
Errautsa		Haizea	
Labe garaiko zepa hautsa		Itzala	
Alga kaltzioa		Ura	
Maskor ehoak		Jaki gabezia	
Kare bizia		Gaitzak eta izurriteak	50
Kare hila		Nondik nora sor daitezke	51
ONGARRI ORGANIKOAK	29	Zer da gaitz bat?	52
Simaurra	30	Gorrina edo mildiua	
Behi simaurra		Herdoila	
Arkorotza		Zurina edo oidioa	
Ahuntz simaurra		Usteldurak	
Txerri simaurra		Zer da izurrite bat?	53
Untxi simaurra		Zorriak	54
Oilo simaurra		Euli txuria	54
Behor simaurra		Nematodoak	55
Luarra	32	Barraskiloa eta barea	55
Ongarri berdea	33	Satagina	55
		Luhartza	56
		Satorra	56
		Hari harra	57
		Azen harra	57
		Beste batzuk	57
LANAK EMATEN DITUENA	34	Arazoei aurre egiteko	58
LANDAREA NOLA SORTU?	34	Txandakatzea	59
		Nor norekin?	60

Sendabide naturalak	62	Ilarra	114
Landare prestakinak	63	Kardua	116
Beratua		Krispeta artoa	86
Irakina		Kuia	118
Egoskina		Kuiatxoa	120
Infusioa		Leka	122
Landare urak	64	Letxuga	144
Etxeko erremedioak	66	Luzokerra	124
Salda bordelesa		Marrubia	126
Sodio bikarbonatoa		Meloia	128
Esnekiak		Orburua	80
Propolioa		Patata	130
Ur oxigenatua		Piperra	132
Intsektizida naturalak	68	Porrua	134
<i>Bacillus thuringiensis</i>		Tipula	136
Xaboi potasikoa		Tomatea	138
Tabakoa + xaboa		Txikoria	142
Sendabideen laburpena	70	Uraza	144
Lagun kuadrilla	72	Zainzuria	146
		Zerba	148
		Ziazerba	150
URTE OSOA BARATZEAN	74		
BARAZKIAK	76	BELAR FIN BIKAINAK	152
Alberjina	78	Albahaka	154
Alkatxofa	80	Erromeroa	154
Angurria	82	Ezkaia	155
Apioa	84	Izpilikua	155
Arto gozoa	86	Martorria	156
Aza jendea	88	Menda	156
Azalorea	90	Mendaroa	157
Azelga	148	Mihilua	157
Azenarioa	92	Oreganoa	157
Baba	94	Perrexila	158
Babarruna	96	Porru-tipula	158
Baratxuria	98	Salbia	159
Borraja	100	Tipulatxa	159
Brokolia	102		
Brusela aza	104	HITZEN MUINTEGITIK BARATZERA	160
Errefaua	106	Erabilitako hitzen hiztegi antzeko bat	
Erremolatxa	108		
Errukula	110	IZEN ETA IZAN	173
Eskarola	112	Aipatutako landare guztien aurkibidea	
Espinaka	150		

TIPULA

Allium cepa

Itxura guztien arabera, tipula da etxekotu eta landu den lehenengoetako barazkia. Milaka urte da Asia aldean lantzen dela. Gure sukaldeetako amandreetako bat da. Sustraiak eta hostoak besterik ez da tipula. Lur azaleko buruari erraboila deitzen zaio. Sustraiak denak haren oinetik sortzen dira, baita hostoak ere, bata bestearen barrutik. Hostoak jaki asko sortzen badu, azpiko aldean gizendu egingo da, tipularen erraboila sortuz. Erreserba mordo bat besterik ez da. Gero, udaberrian, erreserba horien lepotik metro beteko gara luzatu, loratu eta haziak emateko. Haziak jasotzeko bai, bestela garatzea ez da komeni. Buru hori jaten da. Lehortuta bezala freskoa. Freskotan janez gero, hostoen goiko alde berdea ere gozo askoa da! Tipulak ez du nahi inork jan dezan, eta hortzak beregandik uxatzeko, burua hautsi edo mozten denean gas bat sortzen du, begiak eta sudurra erretzen dituena. Zenbat trikimailu ez ote dira saiatu negarra saihesteko! 2008an Zeelanda Berrian negarrik eragiten ez duen tipula sortu zuten.

Milaka urteko baratzeko langintzan, tipula mota eta aldaera asko sortu da: gorri, arrosa, ubel, hori, zuri, tipulina, tipulatxa... Badira tipula arruntak, landareko buru bakarra osatzen dutenak, badira landare bakoitzean buru txiki multzoa egiten dutenak, eta lore tontorrean burutxoak ematen dituztenak ere badira.

aldatu daiteke. Hazia gogorra da eta bere lana ere bai, landarea erosi ohi da. Udazkenean eta neguan aldatzen da. 25-35 cm-ko tarteko errenketan jarri, batetik bestera 12-15 cm inguru utziz. Tarte handixeagoak landare bakoitzarentzat janari gehixeago uzten du eta eguzkiak errazago lehortuko eta berotuko ditu, bai landarea bai lurra.

Tipulatxoak aldatzekotan, otsail aldera jartzen dira, tarte modutsu bera utzi.

Dinarrizko premiak

Azaleko sustraiak ditu, ugariak bai, eta sorta osoa toki beretik sortua. Eguzkitan jarri, arratsaldeko eguzkitan. Urak erraz alde egiten dion lurra eta erruz ongarriritua. Ongarria ondo heldutakoa, sekula ez berria.

Baina buru handia egitea nahi badugu ura behar du. Ur eskasiak buru ttikia dakar, ttikia eta mina. Horrexegatik udaberria baliatu behar da tipula onak egiteko, eta udako bero handienetan jasotzen dira.

Gogoan izan, tipulak hiru gauza ez ditu atsegin: lur urtsua, lur azidoa eta simaur berria.

Lur azala da ondo prestatu beharrekoa: alde zurretik metro koadroko hiru kilo simaur edo luar zahar eman. Hilabete ingurura karea. Errautsa ere bai. Gero tarte bat utzi aldatu zurretik. Asentatutako lurra gustatzen zaio.

Noiz zer lan

Jartzeko hiru era daude, hazia, landaretxoak eta tipulatxoak.

Hazia udan, udazkenean eta neguan ereiten da, toki babes batean, 12-18 °C artean. Jaiotakoan, pixkanaka kanpoko freskurara ohitu. Bi hosto oso dituenan

Jateko bezain estimatua
da tipula botiketarako.

Tipula berria, berdea jateko, udaberrian zehar, multzoka aldatu, hamabost egunero. Gero koxkortu ahala jateko. Tipulak ez du belarrik izan behar inguruan. Maiz kendu, baina kontuz, aitzurrarekin sustriak kaltetu gabe. Askoz hobe da lan hori eskuz egitea.



Uzta

Berritan jatekoa, burua koxkortzen hasi ordurako, nahi denean atera.

Jasotzeko, hostoak erabat ihartu zaizkionean, ukitu eta karraska egiten dutenean, biltzeko pronto dago tipula. Uztail amaia edo abuztu hasiera aldera. Sasoi lehorreko egun bero bat aukeratu, lurretik buruak atera eta eguzkitan utzi. Bustitzeko arriskua izanez gero, aterpe batean zabal-zabal eginda jarri. Ondo lehortu direnean, sustriatetako lurra kentzeko astindu eta sareetan edo kordetan, lokarri batean lotuta, zintzilik jaso, haizeberritzen den toki fresko batean.



Gaitzak eta izurriteak

Usteldurak, mildiua eta gorrinak izaten ditu hezetasuna ugari bada. Ongarri berriak ere gaitz horiek harrotzen ditu.

Tipulari erasotzen dion eulitxoa, uxatzeko perrexila jarri aldamenean, haize nagusiak jotzen duen aldetik.

Nor norekin

Azenarioarekin, perrexilarekin, marrubiarekin, urazarekin, tomatearekin, erremolatxarekin eta luzokerrarekin ondo moldatzen da.

Aldamenean lekadunik ez jarri, kalte egingo baitiote: baba, ilarra, leka edota babarruna. Ez porrua, ez aza, ezta patata ere.

Azenarioak eta biek elkar hartzen dute. Batak besteari eraso egiten dion eulitxoa uxatzen dute.



TRIKIMAILUAK

Oiartzungo Artamugarriko Felix iaioa da oso, besteak beste, tipulagintzan. Otsaileko ilbeheran aldatzen du tipula, berak gogoratzen du esaerak dioena: "San Jose (martxoak 19) baino lehenago aldatu behar da tipula", bestela ez omen da egiten.

Lur buztintsu trinkoa edo urtsua baduzu, tipula jartzeko lanik ez hartu, ez duzu eta atarramenturik egingo.

Tipulak burua egiteko argi orduak neurtzen ditu. Burutzeko 12 edo 13 edo 14 argi ordu baino gehiago behar dituzten tipula aldaerak daude. Galdetu zer jartzera zoazen jakiteko. Hemen izaten diren argi orduak, gutxi gorabehera: martxoaren 20an 12, apirilaren 10ean 13 eta apirilaren 30ean 14.

Jasotzeko tipulak bildu aurreko hilabetean, belarrik gabe, garbi-garbi eduki, eguzkia bururaino sartu dadin.

Ardi gorotz zahar-zaharra bezalako ongarririk ez omen da tipularentzat.

Udaberrian, barrua mugitzen hasten zaionean, ziltzen hasten denean, orduan da gozoena.



Xitaxainak:
Zure oinhazeak emendatzen dire
denbora khanbioetan,
ilhargi berria edo ilhargi bethea
denean


“Lehenagoko eskualdunak zer ziren”,
1889
Mixel Elizanburu

Badakidana zera da:
planetek, eguzkiak eta ilargiak
gizakiarengan inolako eraginik
sortzen ez badute,
eragin horretatik itzurtzen den
Lurreko gauza bakarra dela.

Robert A. Millikan
1923ko Fisika Nobel sariduna.

Luarra edo ongarri organikoa egiteko toki bereizi bat jartzea da onena. Bertan hiru pila izango ditugu: bat usteldua dagoena eta ongarri gisa lurrari ematen ari garena, bigarrena hondakinak pilatuta eta usteltzen ari dena, hirugarrena sortzen ari garen hondakinak pilatzeko. Niri egurrez egindakoa gustatzen zaizkit, baina era askotara antola daiteke. Baratzean bertan sortzen diren hondar organikoak

(hosto, zarba, zuztar, belar...) etxeak ere gehitzea litzateke egokiena. Baratzeak jaten ditugun etxetik, atzera bueltan baratzerara. Gure bizimoduan sortzen dugun hondar organikoa, ez hondakin gisa, baizik eta gure lurraren elikagai bezala baliatzen dugun egunean, aurrerapausu ikaragarria emango dugu geure bizitza kalitatearen hobekuntzan. Baita gure lurraren eta ingurumen osoaren zaintzan ere.



Luarra nola egin?

Tokia garrantzitsua da. Lurraren gainean egitea komeni da. Bero handiak egiten dituen tokian itzaletan jarriko dugu luartokia, toki hotz eta hezeetan, aldiz, eguzkitan. Bakoitzak gure amon pareta dugun eran, ongarria egiteko eskolak, baratzezainak adina dira, ia. Era erraz bat azalduko dizut: hondakin organikoak eta simaurra, 3 - 1 proportzioan nahasi eta errauts pittin bat gehitu. Simaurrik ezean, lehendik ondutako ongarria jarri eta errautsaren ordez karea erabili daiteke. Egiten ari den ongarri pila gutxienez ilargiero (ilbeheran) jiratu, ez gehiegi berotu eta, arnasa hartuz, lizundu ez dadin. Maizago iraultzen baduzu hobe. Berotu, berotu egin behar da, hartzidura egokia egiten ari den seinale. Ez bada berotzen harrotu. Harro eusteko ezpalaren tankerako

hondakina (zarbak, lasto zakarra, orbela...) nahastu beharko diozu, agian. Asunak nahastuz gero luarra azkarrago onduko da. Zenbaitek asun uraz bustitzen du. Hiruzpalau hilabetera, temperatura apaltzen zaionean, bakean utzi. Hortik aurrera ez du airerik behar. Zizareen tankerako zomorro handiagoen lana hasiko da, eta hauek bakea behar dute. Zortzi-hamar bat hilabeterako erabiltzeko moduan egongo da. Kolore iluna, basoko edo perretxiku usain gozoa izango ditu, eta eskuetan erraz xehatzen da. Ez bada hala, gutxiegi harrotu eta irauli duzun erakusle da. Zahartu ahala, bere osagaiak mineralizatu egingo dira, eta ez da komeni. Behin egina dagoenean lasai erabili, lurrari azalean emanez edo nahasiz.

PERREXILA

Petroselinum crispum

Lorontzian edo baratze bazterrean... Nonahi eduki dezakegu perrexila. Eskuera edukiz gero, sariago erabiliko duzu; ebaki berritan alde ederreko lurrina erasten dio janariari. Horrexegatik, etxe guztietan beharko luke: leihoan, balkoian...

Bi urtekoa da. Urte batean zaina loditu eta hurrengoan lorea eman eta haziak ekarriko ditu. Martxotik hasi eta irail amaiera arte ereiten da. Gure amona zenak iraileko ekinozioan ereiten zuen. Mainatia da, erein eta hilabete inguru behar du azaltzeko. Haziak dituen osagai babesle batzuek zaildu egiten dute hozitzea. Errazteko, lizpaporean igurtzi haziak eta egun betez ur epeletan eduki. Ez asko lurperatu. Lur harro aberatsa nahi du, simaur zaharrez eta karez hornitua. Hostoz hosto bilduta, etengabe berritzen da. Izotzak kalte egiten dio, babestu. Bigarren urtean hostoak zakartu eta lorea zabalduko duen gara emango du. Uzta luzatzeko gara luzatzen ez utzi eta ipurditik moztu. Bare eta barraskiloei asko gustatzen zaie, batez ere jaio berritako punta berria.



PORRU-TIPULA

Allium schoenoprasum

Ez dakit nork jarriko zion porru-tipula izena baina erdiz erdi asmatu zuen. Bien arteko dasta bikaina du bere hostoak. Tipularekin lotzen dute (*ciboulette*, *cebollino*...) baina ez du hark duen erraboila edo burua. Hostoak baliatzen ditugu, moztu ahala berritzen delarik. Arrosa koloreko lore borobilak ematen ditu. Ontzi batean etxean egiteko landare egokia da. Landare iraunkorra da, baina hotz handia egiten duen tokietan urtero berritu beharko da. Landareak negua osorik igaro badu, zatitu eta arrabeteko tartearekin aldatu. Bestela hazia, sarri xamar erein. Bi eretara, martxo aldera. Landaretik datorrenari hostoa azkarrago mozten hasiko gara. Sarri-sarri moztu hostoak, horrela berritzeko grina piztuko diogu.

Ongarriak bi multzo nagusitan banatzen dira: organikoak eta mineralak.

Ongarri mineralak bi eratakoak izan daitezke:

mineral naturalak eta sintetikoak. Izenak esaten duen eran, naturalak naturak berak sortutakoak dira, lurrean bertan topatzen dira. Sintetikoak, aldiz, industriatan sortzen dira. Baratze ahalik eta logikoena egitez gero, ongarri mineralak ahal den gutxien erabiltzea komeni da, baita naturalak ere. Ongarri hauek lurraren oreka dantzan jartzen dute. Batzuek ikaragarritzko kaltea eragiten dute mikroorganismoak makalduz eta lurrari bizia kenduz. Beste batzuek janariak blokeatzea ekar dezakete, eta landareak jaki horiek hartu ezinik izango dira. Era berean lurra okitu daiteke eta pozoituta bezala, erreta gelditu, ezer emateko gai ez dela: erabat antzua.

Ongarri mineral naturalak fosfatoak, nitratoak eta abar dira. Beti ere lurretik bertatik erauzitakoak. Horietan kaltzioa da aparteko hitz batzuk merezi dituen.

Karea edo gisua. Kaltzioa da. Euskal Herriko isurialde atlantikoan lur gehienak buztintsuak dira. Buztina lur aberatsenetakoa da, baina gure herrian esaten den bezala, honek ere ipurdian zuloa, alde txarrak ere badituela, alegia. Hemengo eguraldiak ere ez du laguntzen eta buztin lurra lur itoago eta azidoago bihurtzen du. Jaki batzuk lurrean korapilatu antzean daude eta landareak ezin ditu hartu, behar bezala elikatu ezinik dagoelarik. Korapilo hori kareak askatzen du: pH-a igo egiten du lurraren azidotasuna apalduz, lurra harrotu egiten du, aire gehiago sartzen da, urak aiseago alde egiten du, lurrari bizia ematen dioten mikroorganismoak hobeto biziko dira, osagai

organikoak errazago usteldu eta desegino dira eta lurrean dauden janariak landareen esku jartzen dira. Nonahi karobiak izateak ederki adierazten du kareak zein garrantzi duen gurean. Lurra hobetzeko bezala kortak, ukuiluak, etxean desinfektatzeko ere erabiltzen da.

Lur buztintsuak etengabe beharko du karea. Behin bota dugula-eta ez dugu arazoa zuzenduko. Beraz, urtero edo biz behin ematea komeni da, pixkanaka lurrari azidotasunaren kontrako joera emateko. Bat-bateko aldaketa baino hobea da. Kare gaindosiak ere arazoak sor ditzake: mineral batzuk kateatu (boroa, burdina, manganesoa, aluminioa, zinka...), ongarri organikoa urritu... Kontuz, beraz. Lur azidoari karea ematea teknika ona da, baina simaurra edota ongarri organikoak ere erruz dantzatu beharko ditugu. Baratze emankorra izateko simaurrak edo luarrak eta kareak uztarri berean joan behar dute. Aspaldiko urteetan karerik usaindu ere egin ez duen lurrari eman metro koadroko 150 edo 200 gramo kare bizia edo hila. Gero, hortik aurrera urtero 50-70 gr nahikoa izango da.



AZENARIOA

Daucus carota subsp. *sativus*

Euskal Herrian, mendian dugu azenario basaka, *Daucus carota*. Berez, urte batean hazi eta sustraietan erreserbak pilatzeko gaitasuna du, haien bizkar hurrengo urtean loratuko da. Mediterraneo ekialdean ondu zituzten sustrai lodiko azenario aldaerak. Handik, Asia aldetik arabiarrek ekarri zizkiguten eta hemendik barrena iritsi ziren Europako mendebaldera. Ingalaterran eta Frantzia soinekoak eta kapelak apaintzeko erabiltzen zituzten haren sustraiak, hostoak, loreak... Ikaragarriko aldaera aukera dugu, gaur egun, eta urte osoan azenario freskoa izan dezakegu baratzean. Kolore askotako sustraiak dituzten azenarioak daude: moreak, gorriak, laranja, horiak, laruak, zuriak...

Dinarrizko premiak

Lur sakona nahi du, harririk gabekoa eta urak itotzen ez duena. pH neutro ingurukoa gustatzen zaio, hau da, buztin-lurrak ez ditu maite. Beroa gustatzen zaionez, ahal izanez gero eguteren erein.

Lurra ongi prantatu: hondarra edo mausarra erantsi, ondutako simaurra eta karea edo errautsa.

Ez da nitrogeno zalea, eta fosforoa baino potasioa nahiago du. Lur aberatsegian itxuragabeko azenarioak hazten dira. Hori dena, erein baino lehen. Lurrak harro egon behar du, hatza erraz sartzeko moduan. Lur zakarra edo harritsuak badugu sustrai motz borobileko aldaerak erabili.

Landarea txikia denean tarteko belarrak kentzea garrantzitsua da. Behin hazten denean bere hostailak gaina hartu, lurra estali eta kontra egingo die. Ureztaketa ez ahaztu.

Noiz zer lan

Ardatz itxurako sustrai nagusi bat duten landare guztiak bezala, azenarioa ez da aldatzen. Erein egiten da, bakan, arin erein.



Martxo-apirilean hasi eta abuztura arte erein daiteke. Urte guztiko etengabeko uzta nahi baduzu, ilbehera oro erein.

Sail osoa edo ilaraka erein daiteke. Hazia txikia da eta lana errazteko hondarrarekin nahasten da. Ez da ia lurpean sartu behar. 8-10 aste ondoren jasotzen hasteko moduko azenarioak izango ditugu.

3-4 hosto dituztenean bakandu, eta belarrak kentzea ez ahaztu. Aurrerantzean ere bakanketa gehiago egin beharko dira, baina azenariotxoak jateko modukoak izango dira.



Uzta

Azenarioak handi egiteko zain ez egon, txiki-txikitatik jan. Xamurrak eta kurruskatsuak bildu.



Gaitzak eta izurriteak

Nematodo bat baino gehiago ditu arerio. Hostoaren usteldura eragiten duten onddo askok erasotzen diote...


Azenarioaren eulia da izurrite kaltegarriena: azenario ilara bakoitzeko tartean pare bat ilara edo hiru porru edo tipula jarri. Onena tipula. Haien usaina eraman ezina egiten zaio euliari eta alde egiten du. Euli hori maiatzaren erditik ekainaren erdira aldera arte ibiltzen da. Jeneralean berandu ereindakoari ez dio erasorik egiten.

Nor norekin

Lagun onak ditu porrua, tipula, baratxuria, ilarra, tomatea, azak, asentsio-belara, salbia eta erromeroa. Atsegin dituzte, baita ere, loreak: larranbiloa, bitxilorea, baltsamo-belarra, kuminoa, martorria...

Tomatearekin ongi moldatzen da. Hark azenarioaren eulia aldenduko du eta azenarioak, berriz, lurra harrotu eta zorriak uxatuko dizkio tomateari.

Letxuga artean erein. Haiek hazi artean azenarioa itzaletan errazago ernatuko da, eta haiek jan ahala azenarioek hazteko tokia izango dute.



TRIKIMAILUAK

Azenario erraldoiak egin nahi badituzu, palankarekin zulo handi bat egin lurrean eta lorontzietan jartzen den tankerako lurrez bete. Gainean sustrai handiak hazten dituzten aldaeraren bateko bi edo hiru hazi erein. Zortzi kilotik gorakoak lortu izan dira...

Azenarioari kalte handienetakoa egiten dion izurritea eulia da. Landarea hazten ari denean eraso egiten du, batik bat. Usainak erakartzen duenez, egin beharreko bakanketak edo hostoa zimurtu edo haustea, eta usaina zabaltzea dakarren edozein lan ilun-bistan egin, eta hondakinik ez utzi bertan.



Azenarioa egin den sailean lau urte arte atzera berriro ez erein.

Azenario artean kafe hondarrak zabaldu, kalte egiten dioten intsektuak ez dira hurbilduko.

Gaitzei, usteldura eta tankerakoei, aurre egiteko bakantzea garrantzitsua da.

Lurra harrotu, pH-a egokitu eta potasioa emateko, erein aurretik errautsa zabaltzeak mesede ederra egingo dio.

Hitzen muintegitik baratzera

Adaka: kimua.

Aihena: landare batzuek (babarruna eta abarrek) hazteko eta hedatzeko duten kimu nagusia. Hazten den eran, beste landare baten gainean edo horretarako jarritako arban zehar luzatuko da, biraka. Ia denak eskubiz aurrera igotzen dira.

Ainubea: ospela, laiotza.

Aldaera: espezie batean dauden mota desberdinak. Babarrunaren aldaerak dira babarrun beltza, babarrun zuria, babarrun pintarra...

Aldatu: landatu. Landarea nonbaitetik atera eta beste nonbait jarri. Landarearen bizitokia aldatu.

Aldaxka: landare bati moztu eta kentzen zaion zatia, lurlean jarri eta itsatsitakoan landare berri bat izateko. Jeneralean adar zati bat bada ere, zenbaitetan hosto puska bat izan daiteke.

Alfer lurra: landu gabeko saila.

Alferra₁: hazia ereinda, lurrera itsats dadin gainetik pasatzen den zilindro zamatsua. Zurezkoa, harrizkoa edo burdinazkoa izan ohi da.

Alferra₂: altsuma, Saldiasen.

Altsuma: alferra. Landare batek ipurdian, lurraren parean ematen duen kimu berria.

Arbatu: sasoiko landareari eusteko zerbait jarri; lur gainean zabalduko litzatekeena airean lotzeko edozer gauza prestatu: arba, makila, parra edo parda, hesola, burdina, lokarria, sarea...

Arkorotza: ardi gorotza, ardi simaurra.

Arroila: erreldua, ildo. Landareak errenkan aldatzeko edo zehar aldatzeko egiten den zanga edo zulo luzea.

Artabizarra: artaburuaren muturrean, artazorroko zurikinen artetik azaltzen den lore emeen puntan sorta. Bizar bakoitza, buruko lore bat, eta polinizatuz gero artaburuko ale bat.

Artalorea: kabila. Arto landarearen buruko lore arren multzoa.

Artazorroa: zurikin. Artoaren burua babesten duen hosto meheen multzoa. Bere muturretik azaltzen dira bizarrak. Garai batean zigarroak biltzeko erabiltzen zen, eta betegarria bizar horiekin egiten zen.

Atalohia: luarra Etxalarren.

Atxartu: zopizartu, izakitu, xarrakatu, axarkatu, azartu, saratu; Eratsunen.

Atzamarratu: txartzat jotzen diren belarrak eskuz aztarrika kendu.

Axarkatu: zopizartu, izakitu, xarrakatu, atxartu, azartu, saratu; Saldiasen.

Azakia: erretena.

Azalatu: zopizartu.

Azalaitzurtu: zopizartu.

Azartu: zopizartu, izakitu, xarrakatu, atxartu, axarkatu, saratu; Goizuetan.

Azidoa: pH-a 7tik behera duena. Lurra definitzeko erabiltzen da. Adibidez: buztin lurrak azidoak dira.

Azpiak egin: ukuiluan aziendari etzalekua egiten zaion eran, baratzean landare tartean lurra estaltzen duen zerbait jarri.

Plastikoarekin egin daiteke. Baita material organikoren batekin ere: simaur, luar, turba, orbel, lasto, belar, zuhaitzen azal, ezpal, txirbil...

Azpijana: aitzurrez lurpean landarea harrotzeko lana. Adibidez, baratxuria.

Bakandu: landare batzuk kenduz, geratzen direnen artean tarte handixeagoa utzi.

Basaka: basatia, basokoa, baratze-soroetan landu gabeko aldaera. Adibidez, azenario basaka, zuhain azenarioa (*Daucus carota*).

Basikoa: pH-a 7tik gora duena. Lurra definitzeko erabiltzen da. Adibidez, kare asko duen lurra basikoa da.

Basura: ihintza izugarria. Belardian ibiliz gero belaunetik gora ere blai egiten duena.

Bazka: jateko gaia, janaria, jatena. Ukuiluan